



RASSF-AREN ALERTAK ETA JAKINARAZPENAK ELIKAGAIAK

2010ko 2. LAUHILEKOA


elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

2010ko 2. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) elikagaien 862 alerta eta jakinarazpen berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturriei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

Identifikatutako arriskuak	Zenbatekoak
Mikotoxinak / biotoxinak	% 21,5
Kutsadura kimikoa	% 11
Kutsadura biologikoa	% 24,5
Metal astunak	% 7
Hondakinak	% 13
OGMak	% 2,5
Kutsadura fisikoa	% 4
Iruzurrak	% 9,5
Produktua egoera txarrean	% 7



Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % 86an, kutsadura **Aflatoxinek** eragindakoa da eta, horrelakoetan **kakahueteak** kutsaduren % 40 eragin du. Bestalde, kasu gehienetan (% 41,5) kakahuetea **Argentinatik** zetorren. Bigarren produktu garrantzitsua **espeziak** izan dira, aflatoxinek eragindako kutsaduren %24,5, eta kasuen %91an jatorria **India** izan da.

Kutsadura biologikoei dagokienez, **Salmonella sp.k** kutsaduren % 29,5 eragin ditu. Kasuen % 3 bakarrik **Salmonella enteritidis** espezieak eragin du. Kasuen % 10 **Salmonella typhimurium** espezieak eragin du, eta **txerria** kasuen % 57etan hartu du parte. Haragiaren jatorria **espainiarra** izan da %75 kasuetan. Talde horretako protagonista **Salmonella sp.** izan da (kasuen % 87). Eta alerta gehien eragin dituztenak (% 51) **haragia** izan da. Denak europakoak izan dira (% 100). **Belar aromatikoak** dira bigarren produktu jakinarazpen eragilea, %25,5an, europa


izanik jatorria kasuen %80an. Bigarren lauhileko honetan ere, *Listeria monocytogenes* agertu zaigu garrantzitsu, jakinarazpenen %19arekin. Izokin ketua da produkturik nabariena %36,5 kasuetan jatorria kasu guztietan Europa izanik.

Kutsadura kimikoari dagokionez, **Koloragarriak eta Gehigarriak** izan dira eragile nagusiak (kasuen % 60,5). Mota askotako produktuak dira inplikatuak, baina ez dago besteekin erkatuz gero, zenbateko handiagoa duen produktu aipagarririk. Inplikaturako produktuen etorki herrialdeak Asiakoak dira gehienbat.

Metal astunak gero eta gehiago azaltzen dira jakinarazpen eta alertetan. Bigarren lauhileko honetan aipagarria **Merkurioa** %52arekin eta **ezpatarraina** da produktu inplikaturako kasuen %48,5an, eta jatorria: Europa %65a.

Mikotoxinak/Biotoxinak	205	Aflatoxinak	177(86%)	kakahueteak	70(40%)	Argentina	29(41,5%)
				espeziak	43(24,5%)	India	39 (91%)
Kutsadura biologikoa	230	Salmonella sp.	68(29,5%)				
		<i>S. enteritidis</i>	2 (3%)				
		<i>S. typhimurium</i>	7 (10%)	txerria	4(57%)	Espainia	3 (75%)
		<i>Salmonella sp.</i>	59 (87%)	haragia(hegazt.barne)	30(51%)	Europa	30(100%)
		Listeria monocytogenes	44 (19%)	belar aromatikoak	15(25,5%)	Asia	12 (80%)
				marrazoa	16(36,5%)	Europa	16 (100%)
Kutsadura kimikoa	109	Koloratzaile eta gehigarriak	66(60,5%)	espeziak, saltsak	ez dago produktu nabariagorik		
				goxokiak,ozpinetakoak	besteak baino		
Metal astunak	67	Merkurioa	35 (52%)	ezpatarraina	17(48,5%)	Europa	11 (65%)

Kutsaturako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:



Asiari dagokionez, kutsatzaileen % 26 Indiakoak dira, eta kasuen % 26arekin ere, Txina dugu. Europari dagokionez, jakinarazpen gehien sortzen duten herrialdeak Alemania kasuen % 17 eta Espainia % 14 dira. Azkenik, Amerikaren kasuan AEB dira nabarmen jakinarazpen gehien sortzen dutenak (%30).

AURREKO LAUHILEKOAREKIN ERKATZEA

Aurreko lauhilekoarekin erkatuz gero, ondorengoa da azpimarratzekoa:

- Aipagarria da *E.coli* jakinarazpenen igoera, % 1,5tik lehen lauhilekoan bigarren lauhilekora, berriz % 8.
- Pestizida hondakinen jakinarazpenen jeitsiera, 142tik 123ra
- Salmonella espezieak eragindako kasuen jeitsiera garrantzitsua ere, %46tik % 29,5era
- *Listeria monocytogenes* bakteriagatik jakinarazpenen igotzea, %11tik % 19ra pasatuz
- Iruzurren igotzea, %6,5etik %9,5era
- Histaminak eragindako jakinarazpenak bikoiztu egin dira. Lehenengo lauhilekoan 8 egon ziren eta bigarrean berriz, 15.